

2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa

(EHAA, 100. zk., 2003ko maiatzaren 23koa)

ZIOEN ADIERAZPENA

I

Pertsona askok, beren buruaren askatasunaz baliatzerakoan, harreman-talde afektibo eta sexual iraunkorrak eratzen dituzte, ezkontza-kontratu bidez gauzatzera iritsi gabe, edo araubide horretara lotzerik nahi ez dutelako, edo, sexu bereko bikoteak izateagatik, ezkontzeko aukerarik ez dutelako. Elkartzte horiek benetako familia-guneak sortzen dituzte, gaur egun inolako arautze juridikorik ez dutenak, zuzenbidearen babesik ezaren eraginez gatazkak epai bidean jartzen diren kasuetan epaileek eta auzitegiek emandako interpretaziora mugatuta.

Berezia da bi gizonek edo bi emakumek osatutako bikoteen familia-motek jasaten duten babesik eza, bereizkeria jasaten baitute bestelako bikoteen aldean, egindako aukera afektibo eta sexuala beste edozein aukera bezain zilegi izan arren, ordenamendu juridikoak ezkontzako ateak ukatzen dizkielako, eta gizon batek eta emakume batek osatutako bikote ezkongabeen eskubide berberen gozamina ukatzen dielako zenbait kasutan.

Espainiako Konstituzioko 39. artikuluan aipatzen da agintari publikoen betebeharra familiari gizartean eta ekonomian babesa bermatzeko eta babes juridikoa emateko. Artikulu horretan ez da aipatzen familia-eredu jakin bat, ez eta eredu nagusi bat ere; beharrezkoa da, beraz, familia ulertzeko moduaren gainean interpretazio zabala egitea, egungo gizartearen egoerarekin eta Konstituzioko gainerako artikuluekin bat etorriko dena, batez ere 9.2 artikularekin (agintari publikoen betebeharra da norbanakoaren eta norbanakoak elkartzen direnean sortutako taldeen askatasuna eta berdintasuna lortzeko baldintzak sustatzea), 10.1 artikularekin (ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri dira pertsonaren duintasuna eta nortasunaren garapen askea), eta 14. artikularekin (espainiarrak berdinak dira Legearen aurrean, eta ezin da gailendu inolako bereizkeriarik ez jaiotza, arraza, sexu, erlijio edo iritziarengatik ez norbanakoaren zein gizartearen beste edozein izaera nahiz gorabeherarengatik ere).

Bereizkeriarik ezaren printzipioa hautsi egiten da, batez ere, homosexualen kasuan, ezkontzeko eskubidetik baztertuta uzten direlako, nahiz eta bazterkeria hori Konstituzioko testuan agertu ez. Bereizkeria hori, halaber, ekimen hauen guztion kontrakoa da: Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak homosexualen eskubideei buruz onartutako 1981eko unriaren 1eko erabakiaren kontrakoa, eta erabaki hori bere egin zuen Eusko Legebiltzarrak 1982ko maiatzaren 28an onartutako legez besteko proposamen baten bidez; 1984an Europako Parlamentuak onartutako erabakiaren kontrakoa, Europar Batasunean gizarte-errealitateak izandako bilakaera jasotzeaz aparte gayen eta lesbianen berdintasuna sustatzeko neurriak hartzearen aldeko lehenengo ekimena onartu baitzen; Europako Kontseiluaren 1988ko maiatzaren 7ko erabakiaren kontrakoa, izatezko bizikideen arteko ezkontza-kontratuen eta itunen eraginkortasuna onartzeko eskatzen baitu; Europar Batasuneko homosexualen eskubideen berdintasunari buruzko Europako Parlamentuaren 1994ko otsailaren 6ko erabakiaren kontrakoa, berretsi egin baitzen herritar guztiek tratatu berdina jasotzeko eskubidea dutela beren joera sexuala alde batera utzita, eta Batasuneko estatuak eskatu baitzitzaie utz ziezaiotela joera homosexualeko pertsonen tratatu desberdina emateari bai xedapen juridikoetan bai administraziokoetan, eta erabaki hori bere egin zuen Eusko Legebiltzarrak 1995eko ekainaren 23an onartutako legez besteko proposamen baten bidez; eta Euro-par Batasuna eratzekeko itunak aldatzen zituen Amsterdango Ituneko 13. artikularen kontrakoa, hain zuzen ere artikulu horrek ahalmena ematen baitio Kontseiluari sexu-joera dela-eta dagoen bereizkeriaren kontra borrokatzeko. Aipatutako 13. artikuluko hori «Printzipioak» izeneko zatian dator itunaren baitan, eta esan nahi du berebiziko garrantzia duela Europar Batasuneko lege-eremu osorako. Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarrak 2000ko irailaren 26an gomendioa egin die Kontseiluko kide diren 41 estatuetakoko gobernuak neurriak har ditzaten pertsona homosexualen aurkako bereizkeria baztertzeko.

Gure ordenamendu juridikoak dagoeneko jaso ditu zenbait kasu ezkontza-elkarteen antzeko afektibitate-harreman egonkorrez elkartutako bikoteei ezkontzaren pareko egoera onartzeko, zehazki adopzioari, hiri-errentamenduari, asilo-eskubideari, arlo penaleko zenbait xedapeni edo gizarte-prestazioei buruz.

Hala ere, ordenamenduan badira zenbait lege-xedapen ezkontzaren oinarritutako ohiko familia-eredutik bestelakoak diren ereduaren aurkako bereizkeria egiten dutenak, ez baitute kontuan hartzen Konstituzioko 32. artikuluan ezkontzeko eskubidea jasotzen denean ez ezkontzeko eskubidea ere jasotzen dela, baita beste familia-eredu bat aukeratzeko ere, eta eskubide horretaz baliatzeak ez duela zertan legearen aurrean tratatu txarragorik sortu. Konstituzioko testuan debekurik edo mugarik egon ez arren sexu bereko pertsonen artean ezkontzeko, praktikan, hala ere, eragotzi egiten zaie eskubide horretaz baliatzea bi emakumek edo bi gizonek osatutako bikoteei.

Euskal Autonomia Estatutuko 9.2 artikuluan ezartzen denez, euskal agintari publikoek herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak egoki betetzea zaindu eta bermatu behar dute, baita norbanakoaren eta norbanakoak elkartzen direnean sortutako taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izatea lortzeko baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko beharrezko neurriak hartu ere, herritar guztiak Euskadiko politika, ekonomia, kultura eta gizarteko bizitzan parte har dezaten erraztasunak emanez. Estatutuko 9.1 artikulua a) eta b) idatz-zatietan adierazten duenez, euskal agintari publikoek herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak egoki betetzea zaindu eta bermatu behar dute, eta bizi-baldintza hobekak lortzeko politika bultzatu behar dute bereziki.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuko I. tituluan jasotakoaren arabera, izatezko bikoteen egoeran eragina duten hainbat gairi buruzko eskumenak ditu, hala nola Euskadi osatzen duten lurralde historikoentzat berezkoa den idatzizko zein ohiturazko Foru Zuzenbide Zibila eta Zuzenbide Zibil berezia zaindu, aldatu eta garatzekoa, eta bere eraginpeko lurralde-eremua finkatzekoa (10.5 artikulua); adingabeak babestu eta horien tutoretza egiteko erakunde eta establezimenduen antolaketa, araubidea eta jarduteko modua; barne-osasuna (18.1 artikulua); eta, bereziki, gizarte-laguntza (10.12 artikulua). Beharrezkoa da, beraz, Zuzenbide positiboan berariaz aipatzea ohikoak ez diren familia-ereduak askatasunez eratzeko bereizkeriarik ezaren printzipioaren aplikazioa, Euskal Autonomia Erkidegoaren legedia interpretatu eta aplikatzerakoan inoren aurka bereizkeriarik egin ez dadin beraren familiamota dela-eta; berdin izango da familia horren jatorria seme-alabatasuna, ezkontza edo bi pertsonaren arteko elkartze afektibo edo sexuala izatea, direla pertsona horiek sexu berekoak zein desberdinekoak.

Lege honek egungo legedian bizirik dirauten bereizkeria guztiak gainditzeko bidean aurrera egin eta horretan lagundu nahi du, familiako kideen izaera edo gorabehera pertsonal edo soziala bada bereizkeriaren oinarri, gure gizarte-inguruaren kulturaren onartutako afektibitate- eta sexualitate-adierazpide ugarien arabera ulertuta familia; eta horrekin batera Konstituzioan bereizkeriaren aurka, nortasuna askatasunez garatzearen alde eta familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren alde aipatzen diren printzipioen arau bidezko garapena hobetu nahi da, araudia gizarteak historiako une bakoitzean bizi duen egoerara egokituta.

II

Ondorioz, lege honen helburua, batez ere, pertsona askok beren nortasuna garatzen lagunduko dien familia-eredua aukeratzean jasaten duen lege-diskriminazioa desagerraraztea da; aukera afektibo eta sexual guztiak errespetatuko dituen esparru bat sortu nahi da, aniztasun, berdintasun eta askatasun printzipioak errespetatuta. Helburu horiek lortzeko, lehenengo kapituluko artikulua batean ordenamendu juridikoa interpretatu edo betearazteko orduan bakoitzak aukeratutako familia-moduagatik edo joera sexualagatik inolako bereizkeriarik egitea debekatu da. Artikulu hori garrantzi berezkoa da unibertzala izateagatik.

I. kapituluan bertan legearen ezarpen-eremua zein izango den zehaztu da; izan ere, bikotekideetako batek administrazio-egoitza Autonomia Erkidego honetan baldin badauka, legeko eskubideak aitortuko zaizkio bikoteari, inolako bereizketarik egin gabe Estatukoan eta atzerrikoan artean. Horrekin batera, legearen arabera bikote hitzaz zer ulertuko den zehaztu, bikotetzat hartzeko zein baldintza bete beharko diren finkatu eta legeak berak sortutako Izatezko Bikoteen Erregistroa arautu du, oinarrizko printzipioetan. Erregistro hori garrantzi handikoa da, izen-emateak bikotea eratzeko balio duelako, hain zuzen ere legeak aitortutako eskubideak eskuratu nahi ez dituzten bikoteak ez daitezken beren borondatearen aurka legeko eskubide eta betebeharren menpe geratu.

II. kapituluan, hain justu ere, erregistroan izena ematen duten bikoteek zein eskubide eta betebeharrak izango dituzten arautu da. Testuak oinarri duen printzipioaren arabera, bikotekideek askatasunez egindako hitzarmenei balioa eman nahi zaie, eta, hitzarmen horiek akatsen bat baldin badute edo ez baldin badira baliozkoak, orokorrean erregelamendu bidez ezarriko diren klausulek diotenari heldu ahal izango diote; eta horretan, gainera, aurreikuspen batzuk egin dira, seme-alabarik izanez gero, horiek babesteko, bai eta, bikotea desgitean edo bikotekide bat hiltzen bada, babes gutxien duen aldea babesteko ere.

III. kapituluan adingabeen adopzioa edo horiek familian hartzea arautu da, baita izena eman duten bikoteek zein oinordetza-erregimen izango duten ere. Lehenengo kasuan, gaur egun bi gizonak edo bi emakumeak osatutako bikoteek baino jasaten ez duten bereizkeria desagerrarazi nahi da, kasu horietan ukatzen baitu egungo ordenamendu juridikoa haurrak elkarrekin adoptatu edo familian hartzea. Bigarren kasuan, legeak maila berean jarri ditu erregistroan izena emango duten izatezko bikoteak eta ezkontideak, Foru Zuzenbide Zibilean oinordetza-erregimenari buruz esaten direnetan; horrekin batera, gaur egungo legedian oinordetzako zein aukera dauden ere aipatu da.

IV. kapituluan, aurreikuspen batzuk egin dira EAEk dituen eskumeneren barruan, Zuzenbide publikotik bereizkeria desagerrarazteko, eta, horretarako, ezkontutako bikoteak eta bestelako bikoteak maila berean jarri dira zerga, funtzio publiko, osasun, familiako bitartekaritza eta zenbait administrazio-izapideren arloan. Lan arloan eta Gizarte Segurantzarenean ere beste horrenbeste egin da, Euskal Autonomia Erkidegoak gaur egun esparru horretan dituen eskumen urrien eremuan.

V. kapitulua lege honetan arautzen den bikote-modua amaitzeari buruzkoa da; zergatik gerta daitezkeen eta zein ondorio izango dituen zehaztu du. Bi aldeak ados jarrita edo aldeetakoren batek erabakita amaitzen bada bikotea, prozedura azkar eta erraza erabili ahal izango da, baina segurtasun juridikoaren printzipioa ere zainduko da, ezin izango

baita inolako izen-ematerik baimendu aurrekoa bertan behera utzi arte edo ezkontza desegin arte. Horrela, eta kontuan izanda legean Bikoteen Erregistroa arautzen duten artikuluetan aipatzen denez erregistro hori gainontzeko era bateko zein besteko erregistroekin lotuta egongo dela, asmo txarrik gabe edo asmo txarrez gertatutako bikoizketak saihestuko dira.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Legearen helburua eta bereizkeriarik ez egiteko printzipioa

1. Lege honen helburua da izatezko bikotea eratzea erabakitzen duten pertsonen aplikatzeko lege-erregimena arautzea.

2. Euskal Autonomia Erkidegoaren legedia interpretatu eta aplikatzerakoan, ezin izango da bereizkeriarik egin inoren aurka beraren familia-mota dela-eta; berdin izango da familia horren jatorria seme-alabatasuna, ezkontza edo bi pertsonaren arteko elkartze afektibo edo sexuala izatea, direla pertsona horiek sexu berekoak zein desberdinekoak.

2. artikulua. Izatezko bikotearen kontzeptua eta aplikazio-eremua

1. Lege hau aplikatzeko, izatezko bikotea da bi pertsonaren arteko elkartze askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak izan behar dute, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adopzio-ahaidetasunik eduki, ez eta alboko lerroko bigarren mailako odol-ahaidetasunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdin izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko kideek, ez bata ez besteak, ezin dute ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin ere.

2. Lege honetako xedapenak 3. artikuluan eta ondokoetan zehazten den eran eraturako izatezko bikoteei aplikatuko zaizkie. Horrela, bada, izena eman ahal izateko, bikotekideetako batek behintzat Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eduki behar du egoitza, eta ez da begiratuko beste bikotekideak zer herritartasun duen.

3. artikulua. Eraketa eta egiaztapena

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa sortuko da, eta hor izena ematen duten bikoteak legez eratu direla joko da; beraz, izena ematen ez duten bikoteei ez zaie lege hau aplikatuko.

2. Hala bikotearen eraketa, arau hauen xede dena, nola bikote-harremanaren eduki juridiko-patrimoniala Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak emango duen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.

3. Udal-erregistroak dituzten herrietan egiten diren izen-emateek eraketa-ondorio berbera izango dute, baldin eta izena ematerakoan lege honetan ezarritako eskakizunak bete badira; Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak egiaztatuko du eskakizun horiek bete diren.

4. artikulua. Izatezko Bikoteen Erregistroa

1. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa sortzen da, eta unean-unean haren kudeaketaren ardura duen sailaren menpean egongo da; erregistro horrek administrazio-erako kudeaketa izango du eta era deszentralizatuan jardungo da.

2. Erregistroaren xedea da izatezko bikoteen eratze- eta amaitze-deklarazioak jasotzea; bikoteak ezarri ahal izango dituen ekonomia- eta ondare-erregimena arautzeko hitzarmen eta itunak ere jasoko dira.

3. Izena emateko eskabidearekin batera, bikotekideek, izena emateko nahia adierazi ez ezik, 2.1 artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu ere egin beharko dute; gainera, bikotearen bizilekua adierazi beharko dute.

4. Bikoteko kideetako edozeinek eskatuz gero, edo legezko interesa egiaztatzen duen edozeinek nahiz epaile eta auzitegiek eskatuz gero, erregistroak izen-ematearen ziurtagiria egin eta eman beharko du.

5. Egin dituzten izen-emateak jakinarazi beharko dizkiote udal-erregistroek Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroari, eta bikotekideek sinatutako hitzarmen eta itunak adierazi beharko dituzte jakina-

razpen horietan; egindako izen-emateen bertan behera uzteak ere jakinarazi beharko dizkiote, bai eta horien aldaketak ere, bizilekuari edo hitzarmen edo itun arautzaileari eragiten badiote.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa beste autonomia-erkidego batzuetan beraren antzeko direnekin koordinatu beharko da kasuan kasuko hitzarmenen bitartez.

7. Erregelamendu bidez ezarriko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren egitura eta jardunbidea.

II. KAPITULUA

BIKOTE-HARREMANAREN EDUKIA

5. artikulua. Bikotearen harremana eta ekonomiaerregimena arautzea

1. Izatezko bikoteko kideek beren elkartzearen ondorio diren harreman pertsonal eta ondarezkoak arautu ahal izango dituzte agiri publiko edo pribatuaren bitartez, eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak zehaztuko dituzte hor, bai eta bikotea deseginez gero eman beharreko ordain ekonomikoak ere.

2. Ezingo da hitzartu izatezko bikotea aldi baterako eratzea, ez eta haren eraketa baldintzaren baten menpe ezarri ere. Administrazio publikoek ez dituzte erregistroan jasoko edozein bikotekideren oinarritzko eskubide eta askatasunak hautsi litzaketan itunak.

6. artikulua. Klausula orokorrak

Bikoteek, berariazko hitzarmen bat egin ezean, badute era orokor batez ezarritako klausulei heltzea. Klausula orokor horietan honako alderdi hauek egongo dira aurreikusita:

1. Etxebizitzari eusteko eta gastu erkideetarako egin beharreko ekarpenak, baliabide ekonomikoak jarriz edo norberaren lanaren bidez. Gastu erkideetarako ekarpen izango dira etxeko lanak; orobat, beste bikotekidearen lanbide edo enpresan laguntza pertsonal edo profesionala ematea, ordaindu gabe edo behar bezala ordaindu gabe egiten denean; baita norberaren jarduera edo ondasunetatik datozen baliabideak ere, bakoitzaren diru-sarreraren arabera, edo, bakoitzaren diru-sarrera horiek nahikoa ez badira, bakoitzaren ondarearen arabera. Ez dira gastu erkidetzat joko bikotekide bakoitzaren ondasunak aldezteak edo kudeatzeak eragindakoak, eta bikoteko kideren baten interes hutsekoak direnak ere ez, oro har. Bikotekideetako inork ezingo du ondasun erkideen gaineko bere eskubidea besterendu, kargapetu edo, oro har, eskubide horretaz xedatu, baldin eta horrek eskubide horren erabilera beste bikotekidearen baimenik gabe erabiltzeko aukera badakar.

2. Bikotea amaitzearen ondorioak, honako hauek zehaztuz:

a) Behar bezalako mantenurako bikotekideren batek behar izan lezakeen aldizkako pentsioa, egoera hauetakoren bat gertatuz gero:

1. Bikotean elkartzeak diru-sarrerak eskuratzeko gaitasuna gutxitzea eragin izana pentsioa eskatzen duenari.

2. Bien artean izandako seme-alabak zaindu beharretatik lanean aritu ezina, edo eginkizun hori lanean aritzeko oztopo handia izatea.

b) Ordainik jaso gabe edo behar besteko ordainik jaso gabe bikotearen etxebizitzarako edo beste bikotekidearentzako lan egin duen bikotekideak jaso beharko duen ordain ekonomikoa, baldin eta lan horretatik bidegabeko aberastea eragin bada, bien ondareen artean desberdintasuna sortuz.

c) Kideetako baten heriotzagaratik edo heriotza-deklarazioarengatik bikote-harremana amaitzen denean, bizirik gelditzen den bikotekideak edukiko duen eskubidea etxeko arreoaren jabetzarako eta heriotzaren ondoko urtean zehar etxebizitza erkidea erabiltzeko, baldin eta bien artean elkarbizitza egon bazen eta nahitaezko oinordekoen seniparteari kalterik eragiten ez bazaio. Ez du eskubide hori izango izatezko bikote berria eratzen badu edo ezkondu egiten bada.

III. KAPITULUA

ADOPZIOA, FAMILIA-HARRERA ETA OINORDETZA-ERREGIMENA

7. artikulua. Adingabeak familian hartzea

Bikotekideek, biek batera, indarrean dagoen legediaren arabera, adingabeak hartu ahal izango dituzte familian, ezkonduko bikoteen eskubide eta betebeharrak berdinekin.

8. artikulua. Adopzioa

1. Sexu bereko pertsonak osatutako bikoteko kideek, biek batera, adoptatu egin ahal izango dute, sexu desberdineko pertsonak osatutako bikoteen eta ezkonduko bikoteen eskubide eta betebeharrak berdinekin.
2. Bikoteko kide baten seme edo alaba biologikoak zein adopzio bidezkoak eskubidea dute bikoteko beste kideak adopta ditzan.

9. artikulua. Oinordetza-erregimena

Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren uztailaren 1eko 3/1992 Legeak ezarritako ondorioetarako, izatezko bikoteak ezkonduko bikoteen parekotzat hartuko dira. Horrela, bada, oinordetza-erregimenari dagokionez, eta kasuan kasuan aplikatzekoa den foru-zuzenbide zibilaren arabera:

1. Kideetako bat hiltzen denean bizirik irauten duenak ondasun erkide guztien gozamina eduki dezan hitzartu ahal izango dute.
2. Elkarren artean ondasun guztiez xedatu ahal izango dute agiri bakar batean, testamentu mankomunatu edo elkarrekikoaren bidez, eta biek ezeztatu edo aldatu egin ahal izango dute testamentu hori.
3. Testamentuan edo oinordetza-itunean, batak bestea eskuorde izendatu ahal izango du.

IV. KAPITULUA

ADMINISTRAZIOAREN ARLOKO ZUZENBIDE PUBLIKOKO ERREGIMENA

10. artikulua. Zerga-erregimena

Euskal Autonomia Erkidegoak dituen araugintzako eskumenen barruan, izatezko bikoteek ezkonduko bikoteek duten zerga-tratamendu bera izango dute.

11. artikulua. Funtzio publikoko erregimena

Izatezko bikotea osatzen duten pertsonak ezkontideak bezalakoak izango dira Euskal Funtzio Publikoaren Legean eta Euskadiko funtzionarioen estatutua arautzen duten arauetan esaten direnetarako, hain zuzen ere lizentzia, baimen, administrazio-egoera eta lanpostuak betetzeari dagokionez.

12. artikulua. Bitartekaritza

Bikotea osatzen dutenak ados jartzen ez badira, familientzako bitartekaritza baliatu ahal izango da biek nahi baldin badute, aukera hori arautzen duen araudiarekin bat.

13. artikulua. Osasun-zerbitzuak

Osasun-zerbitzuetan, izatezko bikotea osatzen dutenek osasunaren arloko araudiak ezkontideei eta senitartekoei aitortutako eskubide berak izango dituzte; era berean, eskubidea izango dute beren bikotekideen diagnostikoari, pronostikoari eta tratamendurako aukerei buruzko informazio ulergarria, osoa eta etengabea jasotzeko —ahoz eta idatziz—, baita organoak eman eta organoak ateratzeari buruzko informazioa jasotzeko eta lekukotasuna adierazteko ere.

Osasun arloko esku-hartzeren bat dela-eta gaixoaren aurretiazko baimen idatzia behar bada eta gaixo horrek erabakiak hartzeko gaitasunik ez badu, izatezko bikotea osatzen dutenek osasun arloko legediak euskal osasun publikoaren erabiltzaileen ezkontide eta senitartekoei aitortutako eskubide berak izango dituzte.

14. artikulua. Zaharrentzako egoitzak

Zaharrentzako egoitzek, nola publikoek hala pribatuek, ezkontzaz elkartutako bikoteei ematen zaien trataera bera emango diete izatezko bikoteei, bai egoitzetan sartu bai han bizi eta zerbitzuak baliatzeari dagokionez, gelak erabiltzea barne, bai eta egoitzako beste instalazio batzuk elkarrekin erabili ahal izateari eta egoitza erabili eta bertan egoteko beste edozein baldintzari dagokionez ere.

15. artikulua. Post mortem administrazio-izapideak

Izatezko bikotea osatzen duten kideetakoren bat hil egiten baldin bada, beste kideak gorpua identifikatu, eskuratu, lur eman, hildakoaren objektuak jaso eta beharrezko diren gainerako izapide eta kudeaketa-lanetan parte hartu ahal izango du, ezkonduak egiten duten baldintza beretan.

16. artikulua. Espetxeetako erregimena

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere eskumenez baliatuta, egin beharrekoak egingo ditu izatezko bikoteek –sexu berekoak nahiz desberdinekoak izan– eta ezkonduetako bikoteek berdintasunezko tratamendua izan dezaten Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako araudia ezartzerakoan.

17. artikulua. Laneko eta Gizarte Segurantzako erregimena

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, gizarte arloan dituen eskumenez baliatuta, egin beharrekoak egingo ditu lan arloko eta Gizarte Segurantzako arauak ezartzerakoan izatezko bikoteek eta ezkonduak eskubide-berdintasun osoa izan dezaten bai arlo publikoan bai pribatuan.

V. KAPITULUA

IZATEZKO BIKOTEA AMAITZEA

18. artikulua. Bikotea amaitzeko arrazoiak

Lege honetan aipatzen direnetarako, izatezko bikotea ondorengo arrazoiengatik joko da amaitutzat:

- a) Kide biak horretan ados jarri direlako.
- b) Bietako batek hala erabaki duelako, eta besteari egiaztatzeko moduan jakinarazi diolako.
- c) Bietako batek hala erabaki duelako, eta besteari egiaztatzeko moduan jakinarazi diolako. Bikotea osatzen dutenetako bat hil delako edo hildakotzat jo dutelako.
- d) Izatezko bikotea osatzen dutenak elkarrekin ezkondu direlako.
- e) Bikotea osatzen dutenetako bat ezkondu egin delako.

19. artikulua. Bikotea amaitzeak dituen ondorio eta betebeharrak

1. Izatezko bikotea amaitzen baldin bada, bi kideek, edo bi kideetako batek —erabakia bakarrarena baldin bada—, kasuan kasuko erregistroko izen-ematea bertan behera uzteko eskatu beharko dute. Ez kide batek ez besteak ezin izango du lege honen arabera beste bikoterik osatu, aldez aurrekoa bertan behera uzten ez baldin badu.

2. Erabat egiaztatuta baldin badago izatezko bikotea osatzen dutenetako bat edo biak hilda daudela, edo bietako bat edo biak ezkontuta, izen-ematea bertan behera utzi ahal izango du Administrazioak bere kabuz nahiz interesatuak eskatuta.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa

Euskal Autonomia Erkidegoan lege hau indarrean jarri aurretik onartutako lege eta araudi guztietan ezkontzari buruz egindako aipamenak izatezko bikoteei buruz egindakoak ere badirela joko da aurrerantzean.

Bigarrena

Lege honetan berariaz araututa ez dauden gai guztietan, izatezko bikoteak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoekin izan litzaketen harreman juridikoetan ezkontideekin parekaturik egongo dira, eta indarrean dauden arauak aplikatzeak eragin litzakeen mugak bakarrik izango dituzte.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa

Lege hau onartu aurretik osatutako izatezko bikoteei ere ezarriko zaie honetan esaten dena, baldin eta legean aipatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte. Horretarako, udal-erregistroek, aldez aurretik bikotekideek baimena ematen badute, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa izatezko bikote guztien zerrenda bidaliko dute, dituzten agiriekin batera, erregistroak izen-emateak baliozkoak diren edo ez egiazta dezan.

Bigarrena

Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren araudia onartu bitartean, sortzen diren zalantzak lege honetan esaten denaren arabera argituko ditu erregistroak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratu dira lege honetan esaten denarekin bat ez datozen xedapen guztiak.

AZKENAK XEDAPENETATIK

Lehenengoa

Sei hilabete igaro baino lehen, Eusko Jaurlaritzak behar diren erregelamenduzko xedapenak emango ditu lege honetan esaten dena betearazi eta garatzeko, nahiz eta lege edo foru-arau bidez garatzekoak diren arloak hala garatuko diren.

Bigarrena

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.